



AGINDUA, 2022KO AZAROAREN  
4-KOA, GOBERNANTZA  
PUBLIKO ETA  
AUTOGOBERNUKO  
SAILBURUARENA, EUSKAL  
ONDARE-ZUZENBIDEAREN  
ARLOKO BEREZITASUNEI ETA  
FAMILIAREN ONDAREA ETA  
ENPRESA DEFENDATZEARI  
BURUZKO LEGE-PROIEKTUA  
EGITEKO PROZEDURA  
HASTEKOA

ORDEN DE 4 DE NOVIEMBRE DE  
2022, DE LA CONSEJERA DE  
GOBERNANZA PÚBLICA Y  
AUTOGOBIERNO, DE  
INICIACIÓN DEL  
PROCEDIMIENTO DE  
ELABORACIÓN DEL PROYECTO  
DE LEY DE ESPECIALIDADES EN  
MATERIA DE DERECHO  
PATRIMONIAL VASCO Y  
DEFENSA DEL PATRIMONIO Y  
LA EMPRESA FAMILIAR.

I. Proiektatutako  
erregulazioaren beharra eta  
horri buruz indarrean dagoen  
araudia eta aplikazio-eremua.

I. Necesidad de la regulación  
proyectada y normativa vigente  
al respecto y ámbito de  
aplicación.

2022ko maiatzaren 18tik ekainaren  
18ra Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazio Orokorraren  
«euskadi.eus» web-atari  
instituzionalaren  
(<http://www.euskadi.eus/eu>) bidez  
egin zen aurretiazko kontsulta  
tramitean aditzera eman zen  
bezala, Euskal Zuzenbide Zibilari  
buruzko 5/2015 Legearen eskutik  
euskal zuzenbide zibil berria eratu  
eta gero, arlo horretako premia  
larrietakoa, Euskal Zuzenbide  
Zibilaren Batzordeak 2015-2018  
aldiarako euskal zuzenbide zibilaren  
egoera ebaluatzeko egindako  
prozesuak agerian utzi zuen bezala,  
haren ondare-erakundeak berritza  
da, 5/2015 lege horretan  
adierazitako ondare-zuzenbidearen  
printzipioetatik abiatuta.

Como ya se adelantaba en la  
consulta previa, efectuada a través  
del portal web institucional de la  
Administración General de la  
Comunidad Autónoma del País  
Vasco «euskadi.eus»  
(<http://www.euskadi.eus/es>)  
desde el 18 de mayo hasta el 18 de  
junio de 2022, una vez alumbrado  
un nuevo derecho civil vasco de la  
mano de la Ley 5/2015 de Derecho  
civil vasco, una de las necesidades  
más perentorias en la materia,  
como puso de manifiesto el proceso  
de evaluación de situación del  
Derecho civil vasco del periodo  
2015-2018 llevada a cabo por la  
Comisión de Derecho civil Vasco, es  
proceder a una urgente renovación  
de sus instituciones patrimoniales,  
a partir de los principios de Derecho

<<DIRECCDEL>> - <<CODPOSDEL>> <<NOMMUNICIPDEL>>  
Tfno.: <<TELFNODEL>> - Fax: <<NUMFAXDEL>> - e-mail <<EMAILDEL>>





Berritze horrek berekin dakar, besteak beste, baserriaren figura tradizionalarekin lotutako kontzeptuak eta erakunde juridikoak garatzea, eta orain arte Foruetatik jasotako ondare-arauen norainokoa eta funtzioa berrikustea, Bizkaiko eta Arabako zati bateko tronkalitateari buruzko arauetatik abiatuta, edo Gipuzkoar baserriaren jabetza eskualdatzeari buruzko arau berezietatik, azken hauek izaki Zuzenbide Zibilaren figura enblematikoenak baitira. Bereziki, ondarezko zuzenbidearenak.

Besteren artean, erakunde horien modernizazioak aditu egin beharko dio lehen sektoreak bizi duen krisi sakonari, zeinaren iturri diren, barrutik, bere erakundeen eta kulturaren landa jatorritik gero eta urrunago eta "ez-nekazaritze" prozesu betean dagoen gizartea bera; eta, kanpotik, testuinguru gero eta globalago eta liberalizatuagoak dakartzan zama eta estuasunak. Krisialdi honek hainbat adierazpen eta erakusle ditu baita ikuspegi zibil batetik ere, horien artean, baserriaren zatiketa etengabea; edo nekazaritza eta industria arloko lanetarako behar diren lurren gaineko presio gero eta ugariagoak, urbanistikoak edo beste natura askotakoak; ustiapenari jarraipena emango dioten oinordekoak aurkitzeko zailtasunak edo oinordekogaien interes eza; edo, azkenik, ustiapenaren familia izaera eta izaera bateratuari eusteko babes handiagoren beharra.

patrimonial esbozados en dicha Ley.

Esa renovación afecta, entre otros asuntos, al desarrollo de los conceptos e instituciones jurídicas relacionadas con la figura tradicional del caserío y una revisión del alcance y función de las normas patrimoniales recibidas hasta ahora de los Fueros, a partir de las normas referentes a la troncalidad, en Bizkaia y parte Araba, o la transmisión de la propiedad del caserío, sobre todo en Gipuzkoa, como figuras más emblemáticas del Derecho civil y, particularmente patrimonial.

Entre otras cuestiones, la modernización de estas figuras debe pasar por atender problemas como la creciente crisis del sector primario, cuyas causas podemos trazar, internamente, en una sociedad cada vez más alejada de su original raigambre rural y en abierto proceso de desagrarización; y, externamente, en los peajes y dificultades que supone un contexto cada vez más global y liberalizado. Crisis ésta, con múltiples manifestaciones también desde una perspectiva civil, que van desde la progresiva fragmentación del caserío y las cada vez mayores presiones urbanísticas y de otra índole sobre el suelo agrario e industrial, hasta la falta o escasez de sucesión o de interés en sucederse en la explotación, o la necesidad de protección de la continuación del carácter familiar o unitario de las explotaciones.



Horrekin lotuta, euskal Zuzenbide Zibila eta ondare Zuzenbideak landa munduan jatorria izan zuen arren, arau horiek eman zituen gizartearen izaera eta garaiari adituta horrela behar zuelako izan, gaur egun erakunde eta zuzenbide horren garapenak ikuspegia hedatzea eskatzen digu.

Lehenengo, landa eremuak eta nekazal jarduerak duten funtzio aniztasuna bistaz galdu gabe, familia ustiapen hutsetatik landa enpresa eta nekazal industrietara (nekazal ekoizpen zuzenaz, zein nekazaritza produktuen lehenengo edo bigarren eraldaketa, ontziratzea eta komertzializazioaz arduratzen diren enpresa horietara, alegia)

Eta, bigarren, oraindik haratago, familia ustiapen edo negozio oro barneratu arte, lehen sektorean kokatuta egon ala ez.

Izan ere, lege honek aditu behar dituen arazo asko familia ondare eta negozioengan eragina daukate, bai negozio hori lehen sektore aritzen bada, (nekazal industriak, arrantzakoak edo basogintza eta eraldaketan dabiltzanak; zein horietara lotutako jardun osagarrietan edo aurrekoei zerbitzu ematen dietenetan, turismo jardunetan, artisautzan edo aurrekoetan erabili beharreko makina-erreminta alorrean, edo aurrekoetan erabili ez arren) bai eta familia jarduna lehen sektoretik at ematen bada ere, buru-belarri arlo industrialean edo zerbitzukoan

En relación con ello, aunque el Derecho civil y patrimonial vasco provenga tradicionalmente del mundo rural, propio de la época en la que se desarrolló originalmente, su actualización nos exige ampliar el enfoque.

Primero, y sin perder de vista la multifuncionalidad que caracteriza el espacio rural y la actividad agraria, considerando las diferentes realidades de las simples explotaciones familiares a las empresas agrarias e industrias agrícolas (las dedicadas a la producción, primera o segunda transformación, envasado y comercialización de los productos agrícolas, ganaderos o forestales).

Y, en segundo lugar, mirando todavía más allá, hacia una perspectiva más amplia que abarca todo negocio o explotación familiar, se ubique o no en el sector primario.

De hecho, muchos de los problemas que se han de atender afectan al patrimonio y al negocio familiar, tanto si se este se desenvuelve en el sector primario o de empresas vinculadas al mismo (industrias agrícolas, pesqueras o de transformación forestal, empresas de servicios vinculadas a las anteriores, actividades turísticas, artesanales, o máquina-herramienta al servicio o no de cualquiera de las anteriores) como si se encuadran plenamente fuera del anterior, en el sector industrial o de servicios. Y son problemas que tienen consecuencias importantes



ematen bada ere, eta arazook euskal ekonomian eragin itzela dute, betidanik haren oinarri izan diren enpresa familia izan delako. Izatez, familia enpresak euskal ehun produktugilearen %70a dira, beraz, euren arazoak Euskadin lehen mailako arazoak direla ulertu behar da.

Horrela, lehen sektorearen arazo propioekin batera, azken hamarkada eta urteetan zehar, beste sektore batzuetan traktore izan diren enpresen kontrol galera garrantzitsu bat nola eman den ikusi dugu, lehenik, 90en krisiaren amaieran sortu ziren horietan, eta, gero, industria arloan lehiakorrak ziren eta interes estrategikoa zuten euskal enpresa txiki eta ertain asko ere, zelan saldu diren kanpoko inbertitzaile eta nazioarteko taldeei ere. Adibidez, enpresa munduko eragile ezberdinek aditzera eman duten bezala, orain gutxi sortutako teknologia elektronikoaren, informatikoen eta komunikazioaren alorreko enpresa txiki asko saldu zaizkie inbertsore atzerritarrei, eta baita hazkunde potentzial handia zuten goi mailako bio-osasun arloko eta industriako zenbait ere bai. Norabide horretan, gure enpresa txiki, ertain lehiakor askok industria-sektore erakargarrietan duten sustraitzea galtzeko arriskua dugu. Sektore horiek kanpoko inbertsiogileek edo atzerriko enpresa-taldeek eskuratu ditzakete etorkizuneko belaunaldi-txandakatzeetan, bereziki txandakatzea jabetzan edo zuzendaritzan ematen bada, edo desinbertsio-prozesuetan, batzuetan enpresa familia bat eratu aurretik edo enpresan

en la economía vasca, de la que es y siempre ha sido un pilar esencial la familia empresaria. Siendo, además, un hecho que las empresas familiares constituyen el 70% del tejido productivo vasco, siendo por tanto los problemas de las mismas una cuestión de primer orden en Euskadi.

De este modo, junto a los problemas propios del sector primario, a lo largo de las últimas décadas y años hemos visto también cómo se daba una progresiva pérdida del control de importantes empresas tractoras en otros sectores. Primero, de las que fueron creadas en la salida de la crisis de los 90, y también, una creciente venta de Pymes vascas competitivas en sectores industriales y de interés estratégico a inversores foráneos o grupos empresariales extranjeros. Por ejemplo, como se ha advertido por diferentes agentes del mundo empresarial, muchas pymes del sector de las tecnologías electrónicas, informáticas y de la comunicación de reciente creación se han vendido a inversores foráneos, y también pymes punteras creadas en el sector biosanitario e industrial con potencial de crecimiento. En esa línea, corremos el riesgo de perder el arraigo de muchas pymes competitivas en sectores industriales atractivos, adquiridas por inversores foráneos o grupos empresariales extranjeros en futuros relevos generacionales en su propiedad o dirección o en procesos de desinversión, a veces antes incluso de que pueda formarse una familia empresaria o



ondorengotza-arazo bat planteatu aurretik ere.

Horrela baieztu egiten da familia-ustiategiei, jatorriz nekazaritzakoei, eragiten dieten familia-ondarearen transmisioarekin lotutako arazo horietako batzuk edozein familia-enpresatara estrapola daitezkeela, familia edozein sektoretan jarduten duela ere.

Horrela gertatzen da familiaren ondarearen zatiketaren mehatxuarekin edo enpresaren gain familiak duen errotze eta kontrol galera saihesteko beharrarekin, eta ondorioz enpresa duen familia izaera, izaera bateratua eta jabetza zuzena mantentzeko babes beharrarekin, bereziki ustiapena edo enpresa sozietate merkantil edo kooperatiba baten bidez egituratu denean; edo ustiaketa zein enpresaren oinordetza eta jarraipenak planteatzen duten arazo bereziekin, bereziki zuzendaritzan eman beharreko ordezkapenak eta belaunaldien arteko jarraipenak suposatzen dituzten horiekin, familia enpresen desagertze arrazoi ohikoena berau; edo arazo horien inguruan familia ikuspegi zabal batetik irtenbideak emateko protokolo eta akordioak emateko komenigarritasunarekin eta horiek indarrean jartzeko arazoekin.

Azaldutako arazoei aurre egiterakoan, gaur egun, gure Zuzenbide Zibilarren baitan tresnak aurkitu ditzakegu joera hoiei galga jartzeko, gure Foru Zuzenbide edo Zuzenbide zibil bereziaren oinarritzakoak izan diren ondare

incluso plantearse un problema de sucesión en la empresa.

Así, podemos constatar que varios de los problemas vinculados a la transmisión del patrimonio familiar que aquejan a las explotaciones familiares, originalmente agrícolas, son extrapolables a cualquier empresa familiar, independientemente del sector en que actúe.

Así sucede con la necesidad de evitar la fragmentación del patrimonio familiar o la pérdida de arraigo y control de la familia sobre la empresa, y la consiguiente necesidad de proteger la continuación del carácter familiar y unitario de la misma y la propiedad familiar última, especialmente, cuando se haya estructurado por medio de sociedades mercantiles o cooperativas; o con la problemática específica que plantea la sucesión de la explotación o empresa y, particularmente, la sucesión en la dirección de la empresa entre diferentes generaciones, como principal causa de extinción de las empresas familiares; o con la conveniencia de alcanzar pactos o protocolos para el establecimiento de acuerdos que les den solución a esos problemas, desde una perspectiva familiar amplia, y las dificultades para hacerlos cumplir.

Frente a los problemas descritos, en nuestro Derecho civil podemos encontrar instrumentos para frenar esa tendencia, mediante la referida actualización y desarrollo de las instituciones tradicionales del Derecho patrimonial más nucleares



zuzenbidearen erakunde tradizionalen eguneratze eta garapen horren bidez. Erakunde horiek, hasiera hasieratik, ardua handia zuten familia baten ziren baserri, burdinola eta errotak osatzen zuten ondarea. ahal zen neurrian, familia tronkal horren kontrolpean mantenduko zela bermatzeko, ondare hori (lur, eraikin, erantsiak) familiaren sostengua ziurtatzeko ezinbesteko gaiak zelako.

Horregatik guztiagatik, Zuzenbide Zibilak ondarea eratzeko eta eskualdatzeko lege-araubidea modu zabalean garatu behar du, horri eragiten dioten araugainerako esparru ugariak kontutan eta horiei lotuta (legeria zibil erkidetik hasi eta hirigintzari, etxebizitzari edo nekazaritzari eragiten dioten lege autonomikoetara), eta familia-enpresen errealitatera (ez soilik nekazaritza enpresen horretara) eta haien premietara egokituta.

II. Kontuan hartzekoak izan daitezkeen arautzeko ala ez arautzeko beste alternatiba batzuk

Ez dago lege espezifiko bat onartzea ez den beste aukerarik Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legean adierazitako ondare-zuzenbidearen printzipioak garatzeko, baserriaren eta landa-errentamenduen araubide osoa barne. Legeak berak eskatzen du garapen hori, eta maila bereko arau batek baino ezin du gauzatu.

del Derecho civil foral o especial, que ya desde sus mismos orígenes estaban fuertemente preocupadas por asegurar el que la familia propietaria de tierras, caseríos, ferrerías o molinos, mantuviera, en lo posible, el control del patrimonio en el seno de la familia troncal, en tanto que ese patrimonio (tierras, casas, elementos anejos) constituían los elementos esenciales para asegurar el sustento familiar.

Por todo ello, la solución desde el Derecho civil pasa por un desarrollo amplio del régimen legal de formación y transmisión del patrimonio, poniéndolo en relación con diferentes marcos normativos que les afectan (desde la legislación civil común hasta leyes autonómicas en materia urbanística, de vivienda o agrícola) y su adecuación a la realidad de las empresas familiares (no sólo agrícolas) y sus necesidades.

II. Alternativas regulatorias o no regulatorias que se han tomado en consideración.

No hay ninguna alternativa posible a la de aprobar una Ley específica para poder llevar a cabo el desarrollo de los principios de Derecho patrimonial esbozados en la Ley 5/2015 de Derecho civil vasco, incluyendo tanto el régimen completo del caserío como el de los arrendamientos rústicos, desarrollo al que llama la propia Ley y que sólo puede llevarse a cabo por una norma de igual rango.



Bestalde, bi aukera daude familia-ondarearen defentsari buruzko eta ondare hori kooperatiba edo merkataritza-sozietate gisa egituratu diren ustiategiei eta familia-enpresen eskualdatzeari buruzko erantzunak bilatu eta horien gain ondare zuzenbide zibilak izan duen proiektiorik ezak gure Autonomia Erkidegoan dituen ondorioak murrizteko; izan ere, euskal zuzenbide zibilaren tradizioarekin eta premia bereziekin bat datorren arren, kooperatiba edo merkataritza-sozietate horren partaidetzei, ekarpenei edo akzioei ez zaie aplikatzen onibarretarako aurreikusitako araubidea:

a) Bada aukera hau: ez da ezer egin behar, eta, beraz, gaur egungo araudia aplikatzeko aukera izango genuke, hau da: Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean eta Gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia-harremanei buruzko ekainaren 30eko 7/2015 Legean, abenduaren 20ko 11/2019 Euskadiko Kooperatibei buruzko legean; bai eta Kode Zibilean, eta uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina eta familia-protokoloen publizitatea arautzen duen otsailaren 9ko 171/2007 Errege Dekretua. Horiek horrela, familia-ondarearen defentsa eta ustiategien eta familia-enpresen akzio- eta enpresa-ondarearen bermea, funtsean, hitzarmen bidez artikulatzen dira, akordioak lortuz, hala nola ondare-itunak, oinordetza-itunak, familia-

Por su lado, existen dos alternativas posibles para abordar las consecuencias que en nuestra Comunidad Autónoma tiene la falta de proyección de la normas relativas a la defensa del patrimonio familiar y relativas a la transmisión de éste sobre las explotaciones y empresas familiares que se han estructurado como una cooperativa o sociedad mercantil a cuyas participaciones, aportaciones o acciones no se aplica el régimen previsto para los bienes raíces, coherente con la tradición y peculiares necesidades del Derecho civil vasco:

a) Incluyendo la opción de “no acción”, nos encontraríamos con la alternativa de aplicar la regulación actual contenida en la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco, la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho y la Ley 7/2015, de 30 de junio, de relaciones familiares en supuestos de separación o ruptura de los progenitores, el Código civil, La Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi; el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio y el Real Decreto 171/2007, de 9 de febrero, por el que se regula la publicidad de los protocolos familiares, de forma tal que la defensa del patrimonio familiar y la garantía del patrimonio accionario y empresarial de las explotaciones y empresas familiares se articule, esencialmente, por vía convencional, mediante la consecución de acuerdos en forma



protokoloak, hitzarmen arautzaileak eta familia enpresarioaren esku dauden gainerako figura adostuak.

de capitulaciones patrimoniales, pactos sucesorios, protocolos familiares, convenios reguladores, y demás figuras consensuales a disposición de la familia empresaria.

b) Bigarrenik, ondare-zuzenbideko arauen berrikuspina eta garapena aprobetxatzeko aukera dugu, baseritik harago haien ekintza-eremua zabaltzeko, familia enpresariari ekintza-tresna berriak emateko, alde batetik, adostasun-tresna horien berezko erregulazioa indartzeko eta helburu horretara egokitzeko, eta, bestetik, itunik ezean, lege-araubide batera jotzeko aukera emateko, lege-lerruneko izaera hori baliatuz akordiook sozietateen, enpresen edo kooperatiben estatutuetan txertatu daitezten errazteko, txertatze horrek ematen duen aukera izan dezaten baina lege zibilaren izaera esku-emailea alde batera utzi gabe.

b) En segundo lugar, tenemos la opción de aprovechar la revisión y desarrollo de las normas de derecho patrimonial para ampliar su campo de acción más allá del caserío, para otorgar nuevos instrumentos de acción a la familia empresaria que, por un lado, refuerce y adapte a ese fin la regulación propia de esos instrumentos consensuales y, por otro, permita en defecto de pacto acudir a un régimen legal, que sin dejar de ser de carácter dispositivo de conformidad con el principio de libertad civil, pueda valerse de dicho rango legal a los efectos de facilitar su incorporación a los estatutos de la sociedad, empresa o cooperativa, y valerse de la protección que dicha incorporación lleva aneja.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2015-2018 Euskal Zuzenbide Zibilaren egoera ebaluatzeko dokumentuan jasotako gomendioekin bat etorritik, erabat baztertzen da "ez egitea" (a) aukera, horren ondorioa egungo egoera luzatzea izango litzatekeelako, familia-protokoloetarako Zuzenbide zibil erkideak ezarritako arau eskasak ñabardurarik gabe aplikatzeagatik, familia-enpresek galdu egiten dute familia-ondarea defendatzeko arau tradizionalak ematen duten babesa. Horrek, zeharka, zaildu egiten du familia-protokoloek eta ondarea eta

De conformidad con las recomendaciones de la Comisión de Derecho Civil Vasco contenidas en el documento de evaluación de situación del Derecho civil vasco 2015-2018, se descarta por completo la opción de "no acción" (a), pues su consecuencia sería prorrogar la actual situación en la que, por la aplicación sin matizaciones de las normas establecidas con carácter general para los protocolos familiares, se priva a las empresas familiares de la protección que las normas tradicionales de defensa del patrimonio familiar otorgan por





familia-enpresa defendatzeko itunek babes-maila hori bera izatea, eta segurtasun juridiko txikiagoa dakar horiek errespetatu eta betearazteko garaian.

medio de la institución de la troncalidad. Lo que, indirectamente, dificulta que los protocolos familiares y pactos en defensa del patrimonio y la empresa familiar puedan gozar de ese mismo nivel de protección y redunde en una menor seguridad jurídica a la hora de forzar su respeto y ejecución.

Horrenbestez, bigarren aukerari (b) erantzungo dion aurreproiektua izapidetzen hastea erabaki da, esan bezala, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen gomendioekin bat etorriz.

Se opta así por iniciar la tramitación de un anteproyecto que responda a la segunda de dichas alternativas (b), de conformidad con las recomendaciones de la Comisión de Derecho civil vasco.

III. Izapidetzeko aukera, urteko arau-planean agertzen ez den arau-proposamena izan arren.

III. Oportunidad de su tramitación a pesar de tratarse de una propuesta normativa que no figura en el plan anual normativo.

Aurreproiektua ez dago aurreikusita, ez 2020ko azaroaren 10eko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartutako XII. Legegintzaldiko Legegintza Programan. Programa horren barruan, kronologikoki hitzartu eta programatu ziren 36 lege-proiektu, hasiera batean legegintzaldi honetarako aurreikusita zeudenak, egungo Lehendakaria izendatu zen gobernu-programaren legegintzarako zehaztaperen gisa.

El anteproyecto no está previsto, ni en el Programa Legislativo de la XII Legislatura que fue aprobado mediante acuerdo de Consejo de Gobierno de 10 de noviembre de 2020, dentro del cual se estipulaban y programaban cronológicamente, los 36 proyectos de Ley que, inicialmente, fueron previstos para esta legislatura como concreción en el plano legislativo del programa de Gobierno con el que fue investido el actual Lehendakari.

Eta ez dago jasota, ezta ere, 2022rako urteko arau-planean. Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 15ean erabaki zuen plan hori argitaratzea eta, (dekretu ugariarekin batera), 2022rako 17

Ni lo está, tampoco, en el plan anual normativo para 2022, cuya publicación se acordó en Consejo de Gobierno de 15 de marzo de 2022, y que (junto a multitud de Decretos) prevé, para este año



lege-proiektu onartzea eta Legebiltzarreraren bidaltzea aurreikusten du (honenbestez: suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak arautzen dituen lege-aurreproiektua; datu pertsonalak babesteko; diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako euskal sistemarena; Euskal Enplegu Sistemarena; gardentasun eta herritarren parte-hartzearena; Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketarena; Finantzen Euskal Institutuarena; dirulaguntzen araubidea arautzekoa; 2023-2026 aldirako Euskal Estatistika Planarena; Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzakoa; eta José Uruñuela dantza-kontserbatorio zentro publikoen artean integratzeko baimena ematekoa; Kable bidezko Garraioarena; Euskadiko mugikortasun jasangarriarena; Euskadiko Osasun Publikoarena; haurren eta nerabeen eskubideena; Garapenerako Lankidetzarena; eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektua).

Hala ere, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30ko 6/2022 Legearen 8.4 artikulua ohartarazi duenez, horrek ez du eragozten proiektu hau egiteko prozedura hastea, eta ez dakar inolako baliogabetze-ondoriorik, batez ere inguruabar hori justifikatzen bada prestatze-prozeduraren espedienteko memorieta eta dokumentuetan.

2022, la aprobación y remisión al Parlamento de 17 proyectos de Ley (Anteproyecto de Ley por el que se regulan los servicios de prevención y extinción de incendios y salvamento; de protección de datos personales; del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión; del Sistema Vasco de Empleo; de transparencia y participación ciudadana; de Transición Energética y Cambio Climático; del Instituto Vasco de Finanzas; reguladora del régimen de subvenciones; del Plan Vasco de Estadística 2023-2026; de Educación del País Vasco; por la que se autoriza la suscripción de un convenio de integración del Conservatorio de Danza "José Uruñuela" en centros públicos; de Transporte por cable; de movilidad sostenible de Euskadi; de Salud Pública de Euskadi; de los derechos de la infancia y la adolescencia; de Cooperación al Desarrollo y Anteproyecto de Ley de Estatuto de las personas consumidoras y usuarias).

Ahora bien, como ya advierte el artículo 8.4 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, "del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, ello tampoco es óbice para que pueda iniciarse el procedimiento de elaboración de este proyecto, ni supone efecto invalidante alguno, especialmente en la medida en que tal circunstancia se justifique en las memorias y documentos propios del expediente del procedimiento de elaboración.



Kasu honetan, hori horrela izateko arrazoia da arau hau egiteko bultzada, eta horretarako unea zehaztea, ez dela horrenbeste (goian aipatutako gobernu-plangintzaren bi instrumenetan sartutako proiektuen kasuan bezala) Gobernuaren beraren edo haren jarduera arauemailearen ondorio, baizik eta Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen jardueraren arabera, azken hau organo aholku-emaile eta espezializatua baita, Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren zerbitzura dagoena.

Ekimenaren jatorria, ekimena egiteko premia eta gomendioak ohartarazten duen aldetik, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordean egindako ebaluazio- eta azterketan lanetan dago, adierazi den bezala.

Ilde horretan, funtsezko bi mugarrak dira, alde batetik, Euskal Zuzenbide Zibilaren egoera ebaluatzeko 2015-2018 aldirako bi dokumentuak, garapen honi ekiteko beharra eta gomendioa jasotzen dutenak (espresuki jasotzen da testu osoaren edo azterketa globalaren 5. eta 6. ondorioetan, eta testu laburraren 19., 20., 21., 22. eta 23. ondorioetan, hau da, beren beregi hiru lege aztertu zituen horretan: Izatezko Bikoteak Arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea eta Gurasoen banantze- edo hausturakusuetako familia-harremanei eta haien bilakaerari buruzko ekainaren 30eko 7/2015 Legea aztertzer

En este caso la razón de que esto sea así radica en el impulso de elaboración de esta norma, y la determinación del momento para ello, no descansa tanto directamente en el propio Gobierno o en su actividad normal (como sí es el caso de los proyectos incluidos por el mismo en los dos instrumentos de planificación gubernativa arriba referidos), como en la actividad de la Comisión de Derecho Civil Vasco, órgano consultivo y especializado, al servicio del Gobierno y de Parlamento.

El origen de la iniciativa, en tanto que advertencia de su necesidad y recomendación de su elaboración, se encuentra, como ya se ha señalado, en los trabajos de evaluación y prospección llevados a cabo en el seno de la Comisión de Derecho Civil Vasco.

En tal sentido, los dos hitos fundamentales son, por un lado, los dos documentos de Evaluación de situación del Derecho Civil Vasco 2015-2018, que recogen la necesidad y recomendación de abordar este desarrollo (se recoge expresamente en las conclusiones 5 y 6 del "texto completo" o análisis global, y en las conclusiones 19, 20, 21, 22 y 23 del "texto breve" o resumen circunscrito al análisis de la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco y Ley 7/2015, de 30 de junio, de relaciones familiares en supuestos de separación o ruptura de los progenitores y de su evolución, ambos aprobados por el Pleno de la



mugatu zen laburpenean). Bi dokumentu horiek Euskal Zuzenbide Zibilarren Batzordearen 2021eko ekainaren 30eko osoko bilkurak onartu zituen.

Eta, bestetik, Euskal Zuzenbide Zibilarren Batzordearen 2022rako Urteko Jarduketa eta Jarduera Plana, zeinak, zehazki, arau-proposamen hau lehenetsi beharreko lan gisa planteatzen baitu bigarren garapen-etapa honetarako; plan hori Batzordeko presidentek onartu du, 2022ko ekainaren 30ean osoko bilkuran aurkeztu ondoren.

Adierazitakoaren ildotik, eta aintzat hartuta Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikulua eta Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek diotena,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.-

EUSKAL ONDARE-ZUZENBIDEAREN ARLOKO BEREZITASUNEI ETA FAMILIAREN ONDAREA ETA ENPRESA DEFENDATZEARI BURUZKO Lege-aurreproiektua egiteko prozedura has dadin agintzea, agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betez. Hauexek hain zuzen ere:

Comisión de Derecho Civil Vasco de 30 de junio de 2021).

Y, por otro, el "Plan de Actuación y Actividades Anuales de la Comisión de Derecho Civil Vasco para el año 2022" que, en concreto plantea esta propuesta normativa como trabajo que se debe priorizar para esta segunda etapa de desarrollo; plan este aprobado por la Presidenta de la Comisión tras la presentación en el Pleno de la misma celebrado el 30 de junio de 2022.

De acuerdo con lo anteriormente expuesto y en virtud de lo establecido en los artículos 26.8 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, "de Gobierno", y 12 y 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, "del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General",

#### DISPONGO

Primero.-

Ordenar el inicio del procedimiento para la elaboración del Anteproyecto de Ley DE ESPECIALIDADES EN MATERIA DE DERECHO PATRIMONIAL VASCO Y DEFENSA DEL PATRIMONIO Y LA EMPRESA FAMILIAR, atendiendo a los objetivos y criterios establecidos en la presente Orden y, en concreto, los siguientes:



### *Xedea eta helburua*

Lege-proiektu honen xedea eta helburua da Zuzenbide Zibilak ondarea eratzeko eta eskualdatzeko lege-araubidea modu zabalean garatzea, horri eragiten dioten gainerako arau-esparru ugariak kontutan eta horiei lotuta (legeria zibil erkidetik hasi eta hirigintzari, etxebizitzari edo nekazaritzari eragiten dioten lege autonomikoetara), eta familia-enpresen errealitatera (ez soilik nekazaritza enpresen horretara) eta haien premietara egokituta.

### *Objeto y finalidad*

El objeto y finalidad de este proyecto de ley es llevar a cabo un desarrollo amplio del régimen legal de formación y transmisión del patrimonio, poniéndolo en relación con diferentes marcos normativos que les afectan (desde la legislación civil común hasta leyes autonómicas en materia urbanística, de vivienda o agrícola) y su adecuación a la realidad de las empresas familiares (no sólo agrícolas) y sus necesidades.

### *Proposatutako arauketaren edukia.*

Arautu beharreko eremuak (proposatutako araudiaren edukiak, alegia) honako helburu edo eginbehar zehatzei aditu beharko die:

- 5/2015 Legean bide-zorrei, baserriaren definizioari edo landa-errentamenduei eta ondare-zuzenbideko beste figura batzuei buruz jasotzen diren erreferentziak garatzea eta garapen deiak betetzea (legeak berak horien garapena eskatzen du eta).
- Bizkaiko tronkalekotasuna (bereziki, foru-saka, inter vivos izan behar baita) eta Gipuzkoako baserria eskadatzeko zuzenbidea (inter vivos salerosketetan aplikagarria eragina izan dezakeen heinean) sistematikoki birkokatzea ondare-egoitzan, eta ez hertsiki oinordetza-erakunde

### *Contenido de la regulación propuesta*

El ámbito a regular, que será el contenido de la normativa propuesta, habrá de atender a los siguientes objetivos concretos:

- Desarrollo de las referencias contenidas en la Ley 5/2015 a las servidumbres de paso, a la definición de caserío o a los arrendamientos rústicos y otras figuras de Derecho patrimonial a cuyo desarrollo llama la propia Ley.
- Reubicación sistemática de la troncalidad bizkaina (especialmente, la saca foral, que ha de darse inter vivos) y del derecho del caserío guipuzcoano (en cuanto sea aplicable en las compraventas inter-vivos) en sede patrimonial y no estrictamente sucesoria, sin perjuicio de mantener en su

gisa, alde batera utzi gabe gaur egungo tokian, oinordetza araudiaren egoitzan, soilik oinordetza-arauak edo oinordetzari lotutako arauak direnak.

- Ondare-erakundeak berritzeko aukera, elementu funtzional eta teleologikoan sakonduz (ustategien eta enpresen familia-izaeraren edo izaera unitarioaren jarraipena babesteko), bereziki familia-enpresen legezko babesa hobetzeko abagunearen ikuspegitik, familia-enpresetako sozietate-partaidetzen jabetza onibar gisa kalifikatzeko aukera gauzatuz, enpresaren familia-izaerari eta izaera unitarioari eustea eta akziodunen familia-jabetza babesteko helburuarekin.
- Familia- eta enpresa-ondarea babesteko hitzarmen bidezko tresnak jaso eta garatzea, familia-protokoloen figuraren inguruan, eta tresna horiek arau zibil espezifikoek araututako kontratu- edo hitzarmen-tresna espezifikoekin (oinordetza-itunak, ezkontza-itunak, haustura-aurreikuspenetako itunak ...) duten lotura hobetu, tresna horien bitartez antola baitaitezke protokoloak, behar diren egokitzapenak eginez.
- Posible renovación de las instituciones patrimoniales, mediante una profundización en el elemento funcional y teleológico (de protección de la continuación del carácter familiar o unitario de las explotaciones y empresas), en particular desde la perspectiva de una potencial mejora de la protección legal de las empresas familiares, haciendo real la posibilidad de calificar la propiedad de las participaciones societarias en las empresas familiares como bien raíz, al objeto de proteger la continuación del carácter familiar y unitario de la empresa y la propiedad familiar del accionariado.
- Recepción y desarrollo de instrumentos convencionales de protección del patrimonio familiar y empresarial, en torno a la figura de los protocolos familiares, y de su conexión con los diferentes instrumentos contractuales o convencionales específicos regulados por específicas normas civiles (pactos sucesorios, capitulaciones matrimoniales, pactos en previsión de ruptura...) a través de los cuales se pueden articular, realizando las adaptaciones pertinentes.



- Aipatutako bi tresna horien bidez, enpresa-proiektuaren jarraipena eta lehiakortasuna lortzea, familia-batasuna sustatuz eta lortu den ondarea zainduz. Ondare pertsonalaren eta enpresa-ondarearen arteko nahasmendua eta arrisku-kutsaduraren saihestea. Oinordetza-tresnen bidez familia-enpresaren etorkizuneko transmisioa planifikatzeko tresnak ematea.
- Lograr, a través de los dos instrumentos antes referidos, la continuidad del proyecto empresarial y su competitividad, fomentando la unidad familiar y preservando el patrimonio que se ha conseguido alcanzar. Evitar la confusión entre el patrimonio personal y empresarial y la contaminación de riesgos. Aportar herramientas para la planificación de la transmisión futura de la empresa familiar mediante instrumentos sucesorios.
- Euskal ondare-zuzenbide zibilaren arloko beste espezialitate batzuk jasotzea, hala balegokio, prestaketa-lanen ondorioz agerian gera daitezkeenak, adibidez: etxebizitzaren salerosketan, jabetza horizontalean, azalera-eskubidean, aukera-eskubidean, lehentasunez erosteko eskubidean, atzera eskuratzeko eskubidean (gai guztiak beste foru-zuzenbide zibil edo berezi batzuetan araututa daude eta) eta bere garaian sar daitezkeen hobekuntzak.
- Recoger otras posibles especialidades en materia de derecho patrimonial civil vasco que puedan ser desveladas a raíz de los trabajos de elaboración, por ejemplo: en compraventa de viviendas, propiedad horizontal, derecho de superficie, el de opción, el de tanteo, el de retracto (cuestiones todas reguladas en otros derechos civiles forales o especiales) y que puedan ser incluidas en su momento.



*Bideragarritasun juridikoaren Estimación de viabilidad  
estimazioa jurídica*

Bideragarritasun juridikoa, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak ekimenaren oinarri diren eta aipatu dituen azterlan eta gomendioetan oinarritutako zantzuen bidez bermatua dago, nahi eta zatzuok prozeduraren barruan osatu eta berretsi egin beharko diren, dagozkion txosten eta irizpenen bidez.

Beste alde batetik, euskal zuzenbide zibilaren alorreko eskumena, Autonomia Estatutuaren 10.5 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik, tinko errotuta egoteaz gain (eskubide historikoaren izaera ere badu, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren babesean), guztiz finkatuta dago bai baserria eskualdatzeko araei dagokienez, bai baserrien tronkalekotasunari, foru-sakari edo lurralde-eremuari buruzko araei dagokienez; eta ez dago inolako zalantza edo ziurgabetasun historikorik arau horiek nekazaritza-ustiategiei ez ezik, protoindustriei ere, hala nola burdinolei edo moliendei, eta haietan dagozkien jabego "partzioei", "piku" edo jabetza-kuotei aplikatzen zitzaizkiela bete betean.

La viabilidad jurídica, ya garantizada indiciariamente por los estudios y recomendaciones de la Comisión de Derecho Civil Vasco en los que la iniciativa se basa y a los que se ha hecho referencia, deberá ser completa y precisamente confirmada en el seno del procedimiento, por medio de los informes y dictámenes pertinentes.

Por otro lado, la competencia en materia de Derecho civil vasco, de la mano de lo previsto en el artículo 10.5 del Estatuto de Autonomía, no sólo está firmemente arraigada (tiene incluso la condición del derecho histórico, al amparo de la disposición adicional primera de la Constitución) sino que está perfectamente establecida tanto en lo referente a las normas de transmisión del caserío, como a las normas relativas a la troncalidad, la saca foral o el ámbito territorial de las mismas; y no existe tampoco ninguna duda o incertidumbre histórica respecto a la aplicabilidad histórica de dichas normas a parciones, picos o cuotas de propiedad referentes a explotaciones no sólo agrícolas, sino también protoindustriales, como ferrerías o molineras.





### *Bideragarritasun materialaren estimazioa*

Lege berria materialki ere bideragarria izango da; izan ere, neurri handi batean, eragindako pertsonen borondatearen autonomiaren esku dauden aukeretan oinarritzen da (modu askoz artikulatu eta argiagoan bada ere), bai eta euskal zuzenbide zibilean agintzen duen askatasun zibilaren printzipioan oinarritutako berezko egintza juridikoak eratzeko eta emateko askatasunaren eta, ondorioz, Legearen izaera eskuemailearen mende dauden aukeretan ere.

### *Estimación de viabilidad material*

La nueva ley también será viable materialmente, porque se basa en posibilidades que, en gran medida, ya están (aunque de una manera mucho menos articulada y clara) en manos de la autonomía de la voluntad de las personas afectadas, y de la libertad de configuración y de otorgamiento de actos jurídicos propios del principio de libertad civil que rige en Derecho civil vasco, y del subsiguiente carácter dispositivo de la Ley.

### *Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak*

Aurreikusitako egitasmoak kontuan hartu beharko du, eta agian eragin edo aldatu ahal izango du, honako lege hauetan xedatutakoa:

- 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa; bereziki, I. tituluaren arautzen diren ondare-zuzenbidearen printzipioak (12. artikulutik 16.era) eta II. Tituluko (oinordetzen) II. Kapituluko (testamentua egiteko askatasuna eta mugak eta lurralde-espezialitateak) hirugarren atalean arautzen direnak (tronkalitatea Bizkaian, Aramaio eta Laudion), bai eta 97. artikulua (baserria), 98. artikulua (Ondazilegiak) eta 99. artikulua (baserria doan eskualdatzean sartu

### *Repercusiones en el ordenamiento jurídico*

La normativa proyectada tendrá que tener en cuenta, y potencialmente podrá afectar o modificar, lo dispuesto en las siguientes Leyes:

- La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco, particularmente en su Título I de los principios de Derecho patrimonial (artículos 12 a 16) y en la Sección tercera (De la troncalidad en Bizkaia Aramaio y Llodio) del Capítulo segundo (De la libertad de testar y sus limitaciones y especialidades territoriales) del Título II (de las Sucesiones), así como los artículos 97 (El caserío), 98 (Los ondazilegis) y 99 (Bienes incluidos en la transmisión a título gratuito del caserío) y la disposición transitoria sexta (Derechos

beharreko ondasunak), bai eta Seigarren xedapen iragankorrean esaten dena (hilobien gaineko tronkalekotasun- eskubideak).

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, eta, bereziki, 12. artikulua (Orube izaera. Eskuratzea eta galtzea); II. Tituluko III. Kapituluak (Lurzoruaren jabetza-araubidea); 29. artikulua (landa-guneen eraentza espezifikoa); 30. artikulua (baserriak berreraikitzea eta baimentzea); 31. artikulua (baratzeko edo abeltzaintzako ustiapen ekonomikoari lotutako oin berriko etxebizitzak eraikitzeko lizentziak eta eraikitzeko lanen gaineko lizentziak eta dokumentazioa ematea); 40. artikulua (Finken, partzelen eta orubeen zatiezintasuna); IV. tituluko III. kapituluak (lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak) eta IV. kapituluak (Azalera-eskubideak); V. tituluko I. kapituluak eta II. kapituluak (lurzatiak eta orubeak eraikitzea) seigarren atala (urbanizazio-kargak); 197. artikulua (urbanizazio- obrak kontserbatzeko betebeharra); eta 199. artikulua (kontserbatzeko eta birgaitzeko betebeharra).
- La Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, y especialmente en: su artículo 12 (Condición de solar. Adquisición y pérdida); Capítulo III del Título II (Régimen de la propiedad del suelo); artículo 29 (Régimen específico de los núcleos rurales); artículo 30 (Reconstrucción de caseríos y su autorización); artículo 31 (Otorgamiento de licencias y documentación de actos de construcción y edificación de nueva planta de vivienda vinculada a explotación económica hortícola o ganadera); artículo 40 (Indivisibilidad de fincas, parcelas y solares); Capítulo III (Los derechos de tanteo y retracto) y IV (Derechos de superficie) del Título IV; Sección Sexta (Cargas de urbanización) del Capítulo I y Capítulo IV (Edificación de parcelas y solares) del Título V; artículo 197 (El deber de conservación de las obras de urbanización); y artículo 199 (El deber de conservación y rehabilitación).
- Maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, Euskal Autonomia
- La Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de



Erkidegoko Izatezko Bikoteak arautzen dituen, bereziki 5. artikuluan (Harremanak eta araubide ekonomiko arautzea) eta 6. artikuluan (Klausula orokorrak).

hecho en el País Vasco, en especial en sus artículos 5 (Regulación de la relación y régimen económico) y 6 (Cláusulas generales)

- 7/2015 Legea, ekainaren 30koa, Gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa, bereziki 4. artikuluan (Itunak elkarbizitza hausten denerako) eta 5. artikuluan (Hitzarmen arauemailea)
- 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena, bereziki honako artikulua hauetan: 20. artikulua (Onarpena), 60. artikulua (Kapital soziala), 61. artikulua (Kapital sozialerako nahitaezko ekarpenak), 62. artikulua (Kapital sozialerako borondatezko ekarpenak), 63. artikulua (Ekarpenen interesa) eta 65. artikulua (Ekarpenen transmisioa).
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa
- 8/2015 Legea, urriaren 15koa, Emakume Nekazarien Estatutuarena
- La Ley 7/2015, de 30 de junio, de relaciones familiares en supuestos de separación o ruptura de los progenitores, especialmente en sus artículos 4 (Pactos en previsión de ruptura de la convivencia) y 5 (Convenio regulador)
- La Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, particularmente en sus artículos 20 (Admisión), 60 (Capital social), 61 (Aportaciones obligatorias al capital social), 62 (Aportaciones voluntarias al capital social), 63 (Interés de las aportaciones) y 65 (Transmisión de las aportaciones)
- La Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda
- La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria
- La Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30ko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, prozedura Hasteko Agindu

De conformidad con lo previsto en el artículo 13.1.c) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, "del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a esta Orden de



honi atsekiko zaio xedapenen inpaktuaren, emaitzaren edo beste mota bateko ebaluazioak biltzen dituen dossier bat.

Inicio del procedimiento se ajustará un dossier en el que se contendrán las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto las disposiciones que acabamos de citar.

Estatuko legeriari dagokionez, bestalde, proiektatutako araudiak kontuan hartu beharko du lege hauetan xedatutakoa:

En cuanto a la legislación estatal, la normativa proyectada tendrá que tener en cuenta lo dispuesto en las siguientes Leyes:

- Kode Zibila, besteak beste, 40., 41., 70., 149., 333., 333 bis, 350., 355., 357., 388., 396., 404., 541., 546., 566., 568., 569., 1325etik 1333ra bitarteko artikuluetan, 1522. eta 1704. artikuluetan ezarritakoa, eta horiekin guztiekin zerikusia duten gainerakoetan.
- 17/2021 Legea, abenduaren 15ekoa, Kode Zibila, Hipoteka Legea eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzekoa, animalien araubide juridikoari buruzkoa.
- Landa Errentamenduen azaroaren 26ko 49/2003 Legea
- 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalari buruzkoa.
- 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa.
- 19/1995 Legea, uztailaren 4koa, nekazaritza-ustiategiak modernizatzeari buruzkoa.
- El Código Civil, entre otros, en los artículos 40, 41, 70, 149, 333, 333 bis, 350, 355, 357, 388, 396, 404, 541, 546, 566, 568, 569, 1325 a 1333, 1522 y 1704 y demás concurrentes o relacionados con ellos.
- La Ley 17/2021, de 15 de diciembre, de modificación del Código Civil, la Ley Hipotecaria y la Ley de Enjuiciamiento Civil, sobre el régimen jurídico de los animales
- La Ley 49/2003, de 26 de noviembre, de arrendamientos rústicos
- La Ley 49/1960, de 21 de julio, de Propiedad Horizontal.
- La Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación
- La Ley 19/1995, de 4 de julio, de modernización de las explotaciones agrarias



- Nekazaritzaren Erreforma eta Garapenari buruzko Legea, urtarrilaren 12ko 118/1973 Dekretuaren bidez onartua.
- 35/2011 Legea, urriaren 4koa, nekazaritza-ustategien titulartasun partekatuari buruzkoa.
- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina, arreta berezia jarrita 107., 110., 111., 112., 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin batera edo horiekin lotuta dauden gainerakoetan.
- 171/2007 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, familia-protokoloen publizitatea arautzen duena
- La Ley de Reforma y Desarrollo Agrario, aprobada por Decreto 118/1973, de 12 de enero.
- La Ley 35/2011, de 4 de octubre, sobre titularidad compartida de las explotaciones agrarias
- El texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, con especial atención a los artículos 107, 110, 111, 112, 123 y 124 y demás concurrentes o relacionados con ellos.
- El Real Decreto 171/2007, de 9 de febrero, por el que se regula la publicidad de los protocolos familiares

*Zer ondorio izango duen eragindako administrazioaren aurrekontuetan, dagokion gaian eta, halakorik badago, dagokion jardueraren sektorean*

Araua egiteko prozeduratik atera daitezkeen ondorengo azterketetatik eratorri daitekeena alde batera utzita, ez da uste, printzipioz, Lege berria aplikatzeak inolako gastu-gehikuntzarik ekar dezakeenik administrazio publikoentzat, ezta dagokion jarduera-sektorearentzat ere.

Proiektatutako arau gehienek araubide argiagoa eta

*Incidencia en los presupuestos de la Administración afectada, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trata*

A reserva de los análisis que puedan resultar del procedimiento de elaboración, no se estima, en principio, que la aplicación de la nueva Ley puede conllevar ningún incremento del gasto para las Administraciones públicas ni, tampoco, para el sector de actividad al que afecta.

La mayor parte de las normas proyectadas se limitarán a dotar de un régimen más claro y estable a



egonkorragoa emango diete, askatasun zibilaren eta borondatearen autonomiaren bitartez, jada eragile ekonomikoen esku zeuden aukerei, baina balia dezaketen lege-babesari dagokionez, aukera sorta berri batekin.

